



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILE
BEKADUNENTZAKO LAN-GIDA ETA
METODOLOGIA

2011/2012 IKASTURTEA

ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEEN PROTOKOLOA

1. NORTZUK DIRA ?

Elkarrizketa-laguntzaileak, gehienetan, beren karreran gaztelania aukeratu duten unibertsitate-ikasleak dira eta urtebete eman behar dute herrialde gaztelaniadun batean, ikasketak bukatu aurretik edo etorkizunean irakasleak izateko behar duten prestakuntza osatzeko. Oro har, ondo menperatzen dute hizkuntza baina ez dute irakasle gisa esperientziarik. Iristean, bi eguneko ikastaro trinko bat egiten dute, Barakaldo Hizkuntz Eskolaren bidez, Barakaldon; eta ikastaro horretan hezkuntza-agintariek euskal hezkuntza sistemari buruz euskal administrazio-ohar praktikoak eta azalpen labur bat emango zaie.

2. IKASTETXEARI JAKINARAZTEA

Ekainean, datorren ikasterterako elkarrizketa-laguntzaile bat izango duela baieztatuko zaio ikastetxeari eta, geroago, fitxa bat bidaliko zaio, laguntzailearen datu pertsonalak, helbidea eta harremanetarako telefonoa jasoko dituen.

Ekainaren bukaeran laguntzailea esleituta dutela jakinaraziko zaie CRLE Ikastetxeak Programan parte hartzen duten ikastetxeei. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zirkular bat bidaliko die, aurrera eraman beharreko jarduerari buruz orientabideak emateko.

3. LAGUNTZAILEARI JAKINARAZTEA

Destinoko ikastetxea jarriko da laguntzailearekin harremanetan, elkarrizketa-klaseak zein ikastetxe motatan emango dituen eta ikasleen ezaugarriak jakinarazteko. Inportantea da laguntzaileak ostatua bilatzeko informazioa eta ikastetxea kokatuta dagoen bailarari eta, oro har, Euskal Herri osoari buruzko liburuxkak jasotzea.

4. LAGUNTZAILEAREN EGINBEHARRAK

Elkarrizketa-laguntzailea urrian hasiko da ikastetxean lanean eta maiatzaren bukaerara arte egongo da. Astean 12 elkarrizketa-klase emango ditu haren ama hizkuntzan eta ezin izango zaio gramatikako klaseak eman edo ikasleen ebaluazioan parte hartzeko inolaz ere eskatu.

Ikastetxe bakoitzaren premien arabera banatuko dira asteko 12 ordu horiek baina hiru egunetan batzen saiatuko da, horrela izango baitu laguntzaileak bere aisian ikastaroak, bidaiak edo kultur jarduerak errazago egiteko aukera. Irakasleen taldeak ahaleginak egingo ditu elkarrizketa-laguntzailea ikastetxearen dinamikan integratzeko, baita haren eta ikastetxearen arteko lankidetzaz sustatzeko ere.

5. LAGUNTZAILEAREN EBALUAZIOA

Ikasturtearen bukaeran, ikastetxearen arduradunak laguntzailearen lana ebaluatzeko galdekizun bat beteko du. Galdekizun hau bidali duten hezkuntza-agintariei itzuliko zaie.

Halaber, CRLE Ikastetxeak Programan parte hartzen duten ikastetxeek jasoko dute balorazioa egiteko dokumentazioa.

6. IRISTEN DEN UNETIK BERETIK INTEGRATZEKO ERRAZTASUNAK EMATEA LAGUNTZAILEARI.

Ikasturtean zehar ondo konpontzeko, oso inportantea da laguntzailea lehen unetik ikastetxeko hezkuntza-taldeko partaide sentitzea; horretarako, informazioa, metodologiaren aldetik laguntza eta aholkularitza eta orientabidea emango zaizkio, ostatua bilatzeko eta Euskal Herrian dagoen aldian egin ditzakeen kultur jarduerari edo ikastaroei buruzkoak.

Hori dela eta, elkarrizketa laguntzaileen lana errazteko komenigarria da tutore bat izendatzea.

7. ELKARRIZKETA LAGUNTZAILEEN ARTEKO HARREMANA ERRAZTEA.

Elkarrizketa Laguntzaileen arteko harremana hobetzeko asmoz antolatu dituzte **blog**:

<http://ayudantesdeconversacion.blogspot.com/>

eta **web site** bat:

<https://sites.google.com/site/laguntzaileakayudantes/>

enlaze hauetan bai lanbide-esperientziak eta bai norbanakoarenak bildu ditzakete. .

8. INFORMAZIOA ZABALTZEA

Horri buruz sor daitekeen edozein zalantza argitzeko edo elkarrizketa-laguntzaileei buruzko informazioa zabaltzeko, interesatuek Ikastetxan zuzendaritzara jo ahal dute, "CRLE elkarrizketa-laguntzaileak" erreferentzia. huisen1@ej-gv.es y huisic05@ej-gv.es

Lanaren antolaketa pedagogikoa: elkarrizketa-laguntzaile gisa lan egitea.

A) ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEAREN ROLA.

Hizkuntza kultur identitatearen berezko elementua da. Beste hizkuntza batzuk ezagutzeak ezagupenak, sentimenduak eta iritziak partekatzen ikastea dakar, hizkuntzari eta gizarteari begira norberarenak ez diren arauak nagusi diren egoeretan. Ikastetxe batean atzerriko elkarrizketa-laguntzailea egotea aparteko aukera da ikasleentzat.

Inportantea da elkarrizketa-laguntzaileak bere hizkuntzan hitz egin eta hitz egin behar dela azpimarratzea eta ezinbestekoa denean erabili behar du bakarrik ikaslearen ama hizkuntza, ez besterik. Haren lana egiten laguntzeko materialak erabiltzea proposatzen da:

- Haren herriko/hiriko kale-mapak.
- Tren eta autobusen ordutegiak, eskolak, dendak, etab...
- Irrati eta telebistako programak.
- Kartelak, abisuak, gonbidapenak, iragarpenak, inprimaki ofizialak.
- Eguraldiari buruzko informazioak, egunkarietako orriak, nerabeentzako aldizkariak, komikien tirak, etab...
- Soinuak eta egiazko elkarrizketak, abestiak, toki mailako pertsonaiak eta azentuak, etab...
- Turismo-liburuxkak, diapositibak, postalak, erabilitako zigilu eta billeteak, posta- inprimakiak, etab...
- Errezetak, erosketa-zerrendak, edarien zerrendak, menuak, prezioen zerrendak, etab...

B) KLASEAK BEHATZEA

Komenigarria da elkarrizketa-laguntzailea ikasturtearen hasieran behatzaile gisa joatea hizkuntza modernoko klaseetara. Horrek ematen dio, lehenik eta behin, gela bakoitzean hizkuntza zein mailatan ezagutzen den jakiteko aukera; bigarrenik, irakasleen asmoak ezagutuko ditu, ikasleek lortu beharreko helburuei begira, eta hirugarrenik, irakaskuntza-metodologia, akatsak zuzentzeko sistemak eta hitz-jarioaren eta perfekzioaren arteko oreka ezagutuko ditu.

C) IKASTETXEAN DUEN TOKIA.

Inportantea da ikasleekin harreman hurbil eta adiskidetsua hasieratik izatea, errespetuzkoa ere izan behar duen arren; halaber, ohituretara egokitzea eta ikastetxearen bizitzan integratzeak badu ere bere garrantzia, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartuz. Honek emango du herrialdeko hizkuntzarekin harreman hobea izateko eta ikastetxe, talde edo gizabanakoen artean trukeak eta korrespondentzia sustatzeko aukera.

D) KLASEETARA JOATEA

Ikastetxeek klasera goi mailetakoko ikasleekin joateko erraztasuna ematen diote normalean elkarrizketa-laguntzaileari eta honek ematen dio hizkuntza maila aberasteko eta hezkuntza-sistema ezagutzeko aukera.

E) HIZKUNTZA MODERNOKO KLASERAKO IDEIA BATZUK

Ikasleek ez dute behar adina menperatzen hizkuntza modernoa, hau da kontuan hartu beharreko jardueraren funtsezko alderdi bat eta, horregatik, ondorengo gomendioak ematen dira:

- Abiadura moteltzea eta hizkera ahalik eta gehien sinplifikatzea.
- Ulertu dela segurtatzeko galderak egitea.
- Gauzak ondo ulertu ez direla ikusiz gero, ideia era desberdinetan errepikatzea.
- Ikasleek ulertzeko baliabide mota guztiak erabiltzea: keinuak, mimika, marrazkiak, etab...
- Itzulpena jotzea, baina gehiegi ez, gainontzeko guztiak huts eginez gero.

Egiazko materialak erabiltzea lehen mailako baliabide metodologikoa da. Alde batetik, indartzen da hitz egiteko motibazioa eta gehiago hurbiltzen dituzte ikasleengana bestela akademikora murrizten diren kultura eta eguneroko hizkuntza. Bestetik, ematen dute egiazkoagoak diren jardura batzuk egiteko aukera.

Ondoren, ideia eta proposamen batzuk sartzen dira, egiazko material horiek gelan erabiltzeko. Itxuraz oso sinpleak diren arren, frogatuta dago klasean duten arrakasta. Entusiasmoak eta zorrotasunak ondo funtzionatzen laguntzen dute.

a) Diapositibak

Gardenak eta erakargarriak. Gutxi.

1. Deskribatzea edo klaseak *ikusten duena* deskribatzeko eskatzea.
2. Irudi horiek herrialde horretakoak berezkoak liratekeenekin alderatzea: kaleak, etxeak, dendak, pertsonak, tabernak, jatetxeak, bide seinaleak.
3. Esparru geografiko batean, Euskal Autonomia Erkidegoan adibidez, kokatzea. Ezaugarri batzuk azaldu eta galderak jasotzea.

b) Kartelak.

Girotzeko baliagarri izan daitezke eta kultura ere adierazten dute. Sarritan aldatzea.

1. Kartelaren gaiak galdetzea.
2. Deskribatzeko eskatzea.
3. Une batean erakutsi, irudia estali eta galdetzea: Zer zarete gogoratzeko gai? Zer dago? Zer zegoen?.

c) Pelikulak

Ez dago zalantzarik, zinema oso erakargarria da baina ondo aukeratzen ez bada eta hizkuntz mailari egokitzen ez bazaio, oso zaila izan daiteke.

1. Ikasketa-planaren barruan testuinguruan sartzea. Ikasleak lantzen ari diren gai bat bada, horri buruz zerbait irakurri edo ezagutzen dutela ziurtatzea.
2. Fitxa bat datu nabarmen batzuekin bete dezatela eskatzea, eszenak ikusten dituzten bitartean, zailtasunik jarri gabe lanari helburu bat emateko asmoz.
3. Hizkuntzaren, gaiaren edo fonetikoaren ikuspegitik elkarrizketa bereziki interesgarri bat errepika dezatela proposatzea proiektzioaren bukaeran.
4. Irakurketa osagarriak proposatzea.
5. Gidoi txiki baten laguntzarekin iritzia, zalantzak argitzeko, ahozko laburpenak,...etab. eskatzea, ondorengo puntuetarako:
 - Ideiak antolatzea.
 - Alderdirik nabarmenenak indartzea.
 - *Erabiltzea* nahi duzuen hizkuntza azpimarratzea.
 - Etab.

Zinemaren gaia aurkeztea hasiera on bat izan daiteke: generoak, zuen herrialdeko zinemaren gaurko ibilbidea, aktoreak, zuzendariak,...etab.

d) Argazkiak

Oso era desberdinetan erabil daitezke. Komikiak eta marrazkiak ere atal honetan sartzen dira.

1. Antzeko argazki batzuen artean bat deskribatu eta identifika dezatela eskatzea.
2. Bikoteka, bi antzeko argazkien arteko desberdintasunak bilatzea.
3. Argazki desberdinen arteko antzak bilatzea, klasea bikoteka edo talde txikietan multzokatuz.
4. Argazki desordenatu batzuk. Ikusi gabe, bakoitzak berea deskribatzea. Sekuentzia logikoa lortu eta istorioa kontatzea.
5. Diktaketa grafikoa.

e) Albisteak

Dena ulertu ez baina bai, ordea, eskatzen den informazioa bereiztea exijitzen duten lan errazak proposatuko dira.

1. Albiste labur bakoitzak ematen duen informazioarekin fitxa erraz bat betetzea: tokia, gertakaria, pertsonak, data,...
2. Entzun den albiste bat azaltzea.
3. Gaztelaniaz birsortzea asteko albisterik nabarmenenak.
4. Eskolako irratiarekin, egunkariarekin, telebistarekin lankidetzan aritzea.

Albiste guztiek, ahozkoek zein idatzizkoek, eztabaida sortzeko modukoak baldin badira batez ere, ematen dute elkarrizketa, eztabaida,...etab. bat izateko aukera.

f) Egunkaria

Elkarrizketak, editorialak, atal finkoak, sukaldaritza, kultura eta denbora-pasak oso erabilgarriak izan daitezke.

g) Inprimakiak

Inprimakiak betetzea ia teknika espezializatu bat da eta alderdi burokratiko batzuekin ohitzeko izan daiteke baliagarri, beste herrialde bat bisitatu edo bertan bizitzen denean ezinbestekoak direnak: NAN, ikaslearen karneta, Gizarte Segurantzaren kartila, pasaporte, banku-kontuak, etab...

Batez ere jarduera idatzia da baina identifikazio pertsonalari buruzko ekitaldi batzuen bukaera izan daiteke.

Gauza bera ez den arren, interesgarria litzateke kutzazain automatiko bat funtzionamenduan jartzea eta Visa erabiltzea (simulazioak).

h) Txartelak

"Egiazko"ra hurbiltzeko lagungarri izateaz gain, pizgarri izan daitezke, bidai agentzia batean, tren bulegoetan, autobusetan,...etab.etan bidai-txartelak erostea simulatzeko.

i) Dirua

Gelan salerosketak simulatzeko erabiltzea: erosketak egitera joatea, kontua ordaintzea jatetxe batean,...etab.

j) Abestiak

Ikasleen interesak, gaiaren egokitasuna eta hizkuntza menperatzen duten maila kontuan hartuz aukeratu behar dira abestiak.

Abestiekin jarduera ugari egin daitezke: hutsuneak betetzea, ahapaldiak berriz ordenatzea, akatsak zuzentzea, bertsoei zenbakia ipintzea, ahapaldi bat berridaztea, aditzaren denborak aldatzea, sinonimoak bilatzea, zerbait marraztea, ahapaldi bat gehitzea, izenburua jartzea,...etab.

k) Jokoak

Jokoak maila guztietan dira lagungarri baina kontuz ibili behar da aukeratzeko orduan, oso zailak izan baitaitezke hizkuntz mailari begira edo oso infantilak ikasleen adinerako.

Ondoren, informazio gisa, joko batzuk proposatzen dira:

1. Ahozkoak

- Letren edo silaben bidez kateatutako hitzak.
- Historia bat eraikitzen duten errima kontsonantedun esaldiak.
- Urkatua.
- Telefono apurtua.
- Ez baietzik, ez ezetzik, ez zuririk, ez beltzik.
- Bai eta ez. Ezkutatutako pertsonaia aurkitzea.
- Hitz bat definitzea. Zein hitz den asmatzea.
- Arau batzuk aldatzen zaizkion mahai-joko batzuk. (Antzara, partxisa, kluedoa,...etab.).
- Animalien, zenbakien, arropen, fruten, bazkarien,...etab.en bingoak.
- Detektibeak eta lapurrak. Lapurraren ezaugarriak biltzen dituen norbait bilatzea.
- Animalia izango bazina, zein aukeratuko zenuke?

2. Idazkiak

- Izena/abizena/hiria/herrialdea/animalia/gauza.
- Letra bat aukeratzen da eta parte-hartzaile bakoitzak letra horrekin hasten den izen, abizen,...etab. bat idatzi behar du. Bukatzen duen lehenak gelditu oihukatu behar du eta lehenago hitzartu den puntuazioa ematen da.
- Hilotz oso gozoa: bi txartel multzo prestatzen dira, adjektiboena bata eta izenena bestea. Ahoz behera jartzen dira mahai gainean eta multzo bakoitzetik txartel bana hartzen da. Bi hitz horiek konbinatuz esaldi bat sortu beharko da.
- Nor zen?, non zegoen?, zer gertatu zen?, zer esan zion jendeak?, zer erantzun zuen?, nola bukatu zuen denak?. Hau da zentzugabekeriaren joko ezaguna.

F) KLASEAK ADIBIDEEKIN ADIERAZTEA

1. IZENBURUA: Nire zuhaitz genealogikoa.

TREBETASUNA: ahozko adierazpena.

AZALPENA: zuhaitz genealogiko bat marraztu eta azaltzen da (ahal diren adina xehetasun emanaz: adina, izenak, egoera zibila, etab...). Ondoren, haien zuhaitz genealogikoa marraztu eta klaseari azaltzeko eskatzen zaie ikasleei. Gainontzekoek orri batean idatziko dute pertsona horri entzuten dioten informazioa. Geroago, irakasleak lehenengo pertsonaren familiaz dakiena azaltzeko eskatzen dio beste bati.

EDUKIA: familia-harremani buruzko hiztegia praktikatzea.

EDUKIAK: ahozko adierazpena.

DENBORALIZAZIOA: 25 minutu (pertsona kopuruaren arabera).

MAILA: erdikoa, seiko taldeetan.

BESTE ARIKETA DIDAKTIKO BATZUETARAKO PROPOSAMENAK: zer esaten duen ulertzen ez badute, hitz egiten duen pertsonari horrelako galderak egiteko proposatu ahal zaie ikasleei: zenbat lehengusu duzu?, zenbat urte du zure aitak?,...etab.

Galderak:

Zenbat pertsona dago zure familian?

Nola du izena zure amak?

Zertan egiten du lan zure aitak?

Zenbat urte du zure arrebak?

Zure amona alarguna al da?

Zure anaia zaharra ezkontuta al dago?

Zein da zure amaren lanbidea?

Zenbat lehengusu duzu?

Nola dute izena?

Anaia txikirik al duzu?

Zein da zure bataio izena?

Zein da zure abizena?.

2.º IZENBURUA: Nor bizi da non?

TREBETASUNA: entzumen-ulermena eta ahozko adierazpena.

AZALPENA: gakoa kale bateko bizilagunak beren etxeetan jartzean datza. Pertsona bakoitzak bizilagun baten datuak (izena, adina, gehien gustatzen zaion edaria, maskota,...etab.) dituen fitxa bat jasotzen du. Taldeka lortzen dute gainontzekoek duten informazioa. Azkenik, informazio bat ematen zaie klabeen, bizilagunak beren etxeetan jar ditzaten.

HELBURUAK:

- Informazioa eman eta jasotzea.
- Informazio desberdinak lotzea, berri bat lortzeko.

EDUKIAK: Hirugarren pertsonari, -zaletasunei, datu pertsonalei, ...etab. i, -buruzko informazioa. Espazioan kokatzea.

DENBORALIZAZIOA: ordu erdia.

MAILA: hasiberriak.

BESTE ARIKETA DIDAKTIKO BATZUETARAKO PROPOSAMENAK: banaka egin daiteke, erdi mailan idatziz ulertzeko ariketa gisa, datuak dituen txartelak kenduz eta idatziz aztarna gehiago emanaz.

IZENA: Jaime EDARIA: tea LANA: kazetaria	ADINA: 32 MASKOTA: Zakurra
IZENA: Ana EDARIA: ura LANA: ikaslea	ADINA: 15 MASKOTA: Pinguinoa
IZENA: Alfredo EDARIA: garagardoa LANA: kontularia	ADINA: 25 MASKOTA: Iroa
IZENA: Nuria EDARIA: esnea LANA: idazkaria	ADINA: 58 MASKOTA: Dortoka
IZENA: Beatriz EDARIA: kafea LANA: sukaldaria	ADINA: 44 MASKOTA: Kanarioa
IZENA: Pedro EDARIA: sagardoa LANA: liburuzaina	ADINA: 67 MASKOTA: Arraina

PERTSONAK KOKATZEKO AZTARNAK

1. Arrainaren jabea idazkariaren eta garagardo-edalearen artean bizi da.
2. 25 urteko pertsona 10 urte gutxiago duenaren ondoan bizi da.
3. Liburuzaina pinguinoaren jabearen eskuinetik bi etxetara bizi da.
4. Te-edalea lehenengo etxean bizi da, eskuinetik hasita.
5. Nuria kazetariaren ezkerretik bi etxetara bizi da.

SOLUZIOA:

ANA	ALFREDO	PEDRO	NURIA	BEATRIZ	JAIME
-----	---------	-------	-------	---------	-------

ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILE BEKADUNENTZAKO GIDA **2011/2012 ikasturtea**

Euskal Autonomia Erkidegoan 2011/2012 ikasturterako izendatu diren elkarrizketa-laguntzaile bekadunentzat da gida hau eta haien lana gauzatzeko behar duten informazioa ematea du helburu.

1) Harrera-ikastetxeak:

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunek ondorengo ikastetxeetan dute destinoa:

- Bigarren Hezkuntzako institutuak.
- Hizkuntz eskola ofizialak.
- Lanbide Heziketaren institutuak.

Bigarren Hezkuntzako institutuek, normalean, 12-18 urteen arteko ikasleak dituzte. Ia Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiek goizeko txandan ematen dituzte klaseak, institutu batzuek gaueko irakaskuntza duten arren. Hizkuntz eskola ofizialek 16 urtetik gorako ikasleak dituzte eta goiz eta arratsaldean ematen dituzte klaseak. Lanbide Heziketako ikastetxeek 16 urtetik gorako pertsonak onartzen dituzte.

2) Ordutegia eta urteko egutegia:

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunak astean 12 ordu emango ditu, izendapenean adierazitakoaren arabera eta hiruzpalau egunetan, esleitu zaion/zaizkion ikastetxean/ikastetxeetan. Haren ikastetxera sartu ondoren, didaktika-departamentuko kide izango da.

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunak irakasle tutore baten laguntza izango du eta honek emango dio programazioari, helburuei eta kurtso bakoitzean exijitutako gutxienezkoei buruzko informazioa. Halaber, emango dio departamentuari esleitutako espazioak, instalazioak, materialak eta hornikuntza erabiltzeari buruzko informazioa. Azkenik, bere gain hartuko du arloko gainontzeko irakasleek bekadunari ematen dizkieten jarduerak ikuskatzearen ardura.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak bere gain hartuko du bekadun laguntzaileen ordutegia egitearen eta betetzen dela kontrolatzearen ardura. Bekadunak, klasera huts eginez gero, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendariari edo ikasketa-buruari. Halaber, ikastetxeko zuzendaritzak Ikuskaritza Zerbitzuari jakinaraziko dio eta honek Ikastetxeen Zuzendaritzari helaraziko dio elkarrizketa-laguntzaile bekadunak justifikaziorik gabe egiten duen edozein hutsegite edo atzerapen.

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunek 2011ko urriaren 1etik 2012ko maiatzaren 31ra bitartean eramango dituzte aurrera beren jarduerak.

Bekadunak izango ditu esleitura duen ikastetxearen 2011-2012 ikasturterako eskola-oporrak, baita Euskal Autonomia Erkidegoko egun espezifikoak ere. Ikastetxeko zuzendaritzak beste baimen batzuk eman ahal izango ditu, aldi laburrak eta justifikatutako arrazoiengatik badira.

3) Elkarrizketa-laguntzaile bekadunaren funtzioak:

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunak irakasle titularrari emango dio laguntza eta haren funtzio espezifikoak ikasleen ahozko trebetasunak indartzeko bideratuko dira.

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunak ezin izango du bakarrik irakatsi eta betiere irakasle titularrarekin batera jardun beharko du.

Ondorengo lan eta jarduerak ez dira elkarrizketa-laguntzaile bekadunaren eskuduntzetan sartzen:

- Ardura osoz irakastea programazio didaktikoaren garapenean eta kalifikazioan.
- Departamentuan sartzen diren irakaskuntzen programazio didaktikoa edo ikasturtearen bukaerako memoria idaztea.
- Azterketak, frogak, kontrolak, idazlanak edo antzeko ariketak prestatu edo zuzentzea.

Elkarrizketa-laguntzaile bekadunak, nahi izanez gero, eskolaz kanpoko jarduera desberdinetan parte hartu ahal izango du: kultur eta kirol jarduerak, ikasketa-bidaiak, eskola-trukeak,...etab. Jarduera horiek laguntzailearentzat oso onuragarri izan daitezkeela kontuan hartuta, parte hartzeko gomendioa ematen zaio.

Bekadunak, ez dagozkion funtzio eta lanak agintzen bazaizkio, premiaz jakinarazi behako dio Ikuskaritza Zerbitzuari eta honek Ikastetxeen Zuzendaritzari helaraziko dio.

4) Txostena:

Ikastetxean egoteko aldiak bukatu baino hamabost egun lehenago, elkarrizketa-laguntzaile bekadunek memoria labur bat egingo dute eta berorretan egindako jardueri buruzko informazioa emango dute. Ikastetxeko zuzendariak oniritzia eman eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeen Zuzendaritza Zerbitzuari helaraziko dio.

5) Elkarrizketa-laguntzaile bekadunaren administrazio-egoera:

a) Ordainketa eta ostatua.

700 eurokoa da 2011-2012 ikasturtean elkarrizketa-laguntzaile bekadunentzat finkatu den hileroko ordainketa. Laguntzaileak bekadunak dira eta, ondorioz, haien ordainketan ez da inolako kenketarik egingo.

Ikastetxean lanean hasi eta 3 egunetara bidali beharko dute betetako hirugarrenen fitxa (Madrilen emango zaien agiria), pasaportearen eta Europako Osasun-Txartelaren fotokopia banarekin batera, Ikastetxeen Zuzendaritzako Bigarren Hezkuntza Planifikatzeko Zerbitzuari, Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ.

Ostatuari dagokionez, destinoko ikastetxearekin harremanetan jartzea gomendatzen da, ostatua ahalik eta baldintzarik onenetan lortzeko laguntza eman diezaioten. Prentsa espezializatua, bertako egunkariak, iragarki-taulak edo beste edozein antzeko sistema ostatu egokia lortzeko lagungarri izan daitezke. Halaber, herrialdera iritsi eta lehen 3 egunetan elkarrizketa-laguntzaileari ostatua emateko gomendioa ematen zaie ikastetxeei.

b) Osasun-laguntza

Elkarrizketa-laguntzaile bekadun guztiek izango dute gure herrialdean dauden aldiaren osasun-laguntza edukitzeko eskubidea. Horretarako, Europako Osasun- Txartela edo E-128 edo E-111 agiria ekarri beharko dute.

c) Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta Erkidegoko egoiliarren txartela.

Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) GUZTIZ EZINBESTEKOA DA HILEROKO ORDAINKETA JASOTZEKO. Lortzeko 15 egun, gutxienez, behar dira. Horregatik, laguntzailea, destinoko herrira iritsi bezain laster, zenbaki hori, ERKIDEGOKO EGOILIARRAREN TXARTELAREKIN batera, eskatu behar du bizi nahi duen edo ekonomi edo lan-jarduera egin behar duen tokiko polizia etxean edo Atzerritarren Bulegoan.

Bi agiriak, AIZ eta ERKIDEGOKO EGOILIARRAREN TXARTELA, aldi berean eskatu behar diren arren, AIZ, kobratzeko ezinbestekoa dena, 15 bat egunetan lortzen da; aitzitik, aldi luzeagoa behar da ERKIDEGOKO EGOILIARRAREN TXARTELA tramitatzeko.

AIZ ETA ERKIDEGOKO EGOILIARRAREN TXARTELA LORTZEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

1. Pasaportea edo nortasun-agiria indarrean izatea eta fotokopiak.
2. 3 argazki (pasaporte motakoak).
3. Lan-dokumentazioa: elkarrizketa-laguntzailearen izendapena, erakunde eskudunak emandakoa.

HELBIDE ERABILGARRIAK:

Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendariorde Nagusia

Ministerio de Educación / Hezkuntza Ministerioa
Paseo del Prado, 28
28014 Madrid
Tfº: 91 / 5065594

www.euskadi.net

www.hezkuntza.net

Dirección de Centros Escolares

Ikastetxeen Zuzendaritza
C/ Donosita-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Tfº: 945/ 018362
huiscen1@ej-gv.es

**Delegación de Educación, de Bizkaia
Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza**

Gran Vía , 85
48011 Bilbao
Tfº:94/ 403 10 00
huisbreg@ej-gv.es

**Delegación de Educación, de Araba
Arabazo Hezkuntza Ordezkaritza**

San Prudencio , 18 bajo
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfº:945/ 01 72 00
huisareg@ej-gv.es

**Delegación de Educación, de Gipuzkoa
Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza**

Andía , 13
20004 Donostia-San Sebastián
Tfº:943/ 02 28 50
huisgreg@ej-gv.es

Ikasleentzat eta Europar bidaiatzen dutenentzat informazio erabilgarria:

http://europa.eu/abc/travel/index_es.htm

http://www.policia.es/documentacion/no_comunitarios/no_comunitarios.html

http://www.fbi.gov/about-us/cjis/background-checks/background_checks (Estatu batuetakoak)